

## **IRAKASKUNTZA GIDA 2018 - 2019**

### **Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoa**

Irakaskuntza zuzendaritza:  
**Miguel Rodríguez Wilhelmi**



Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Magnoliak eraikina

Arrosadiko campusa, z/g

Telefonoa: 948 16 94 28

Helbide elektronikoa: [facultad.humanas@unavarra.es](mailto:facultad.humanas@unavarra.es)

Arreta-orduak: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 20:00etara

## Aurkibidea

<b>1.</b> Aurkezpena	4
<b>2.</b> Prestakuntza programa	5
<b>3.</b> Irakaskuntza egutegia	6
<b>4.</b> Ordu-tegiak eta ikasgelak	6
<b>5.</b> Irakaskuntza metodologiak eta ECTS kredituak. Tutoretza	7
<b>6.</b> Irakasgaien programak	8
<b>7.</b> Practicuma	8
<b>8.</b> Ebaluazio sistema	9
<b>9.</b> Ikaslearen arduraldia eta irauteko arauak	9
<b>10.</b> Masterraren Amaierako Lana	10
<b>11.</b> Kredituen balioa aitortu eta horiek transferitzea	12
<b>12.</b> Tutoretzak	13
<b>13.</b> Informazio osagarria	13
I. Eranskina: PRACTICUM I	15
II. Eranskina: PRACTICUM II	19

## 1. Aurkezpena

---

**Nafarroako Unibertsitate Publikoko Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Unibertsitate Masterraren (BHIUM)** helburua da bide profesionala Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Irakaskuntzako mailetan bilatu nahi duten unibertsitateko tituludunen eskaerari erantzutea, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 24ko 2/2006 Lege Organikoan xedatzen denari jarraikiz, horren arabera derrigorrez egin behar direlako master ikasketak maila horietan irakaskuntzan aritzeko.

Izan ere, master ofizial bat da, eta bere lege eremua garatzen da 1393/2007 EDn, Gradu eta Graduondoko (Masterra eta Doktoretza) unibertsitateko ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen duen horretan, eta ECI/3858/2007 Aginduan.

60 europar kredituko (ECTS) ikastaro bat da; kreditu batek ikaslearen 25 lan orduren balioa du. Ikastaroa bi seihilekotan antolatzen da, arratsaldez (eskola praktikak salbu, haiek goizez egingo baitira).

BHIUM izeneko hainbat arlotan egituratzen da. Irakasle hauek dira Masterraren koordinazio eta jarraipenerako Irakaskuntza Batzordeko kideak:

Kidea	Postua	Saila
Miguel RODRÍGUEZ WILHELMI	Irakaskuntza zuzendaria	Estatistika, Informatika eta Matematika
Raquel CHOCARRO EGUARAS	Idazkaria eta Ekonomia eta Enpresen Kudeaketako koordinatzailea	Enpresen Kudeaketa
Fernando MENDIOLA GONZALO	Kalitateko arduraduna eta Geografia eta Historiako koordinatzailea	Giza eta Hezkuntza Zientziak
Camino BUENO ALASTUEY	Ingeleseko eta Frantseseko koordinatzailea	Giza eta Hezkuntza Zientziak
Jesús CORRES SANZ	Teknologiako koordinatzailea	Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoa eta Komunikazio Ingeniaritza
Alfonso CORNEJO IBERGALLARTU	Fisika eta Kimikako koordinatzailea	Zientziak
Esther María GONZÁLEZ GARCÍA	Biologia eta Geologiako koordinatzailea	Zientziak
Aitzol LASA OYARBIDE	Matematikako koordinatzailea	Estatistika, Informatika eta Matematika
Mónica AZNÁREZ MAULEÓN	Gaztelania eta Literaturako koordinatzailea	Giza eta Hezkuntza Zientziak
Patxi SALABERRI ZARATIEGI	Euskara eta Literaturako koordinatzailea	Giza eta Hezkuntza Zientziak

## 2. Prestakuntza programa

Prestakuntza programa espezialitate hauetan antolatzen da:

- **Berria, 2017/2018 ikasturtetik aurrera!** Euskara eta Literatura
- **Berria, 2017/2018 ikasturtetik aurrera!** Frantsesa
- Biologia eta Geologia
- Enpresen Ekonomia eta Kudeaketa
- Fisika eta Kimika
- Geografia eta Historia
- Ingelesa
- Gaztelania eta Literatura
- Matematika
- Teknologia

Espezialitate bakoitzak modulu eta irakasgai hauek ditu:

Modulua	ECTS	Irakasgaia	ECTS	Izaera	Seihilekoa
<b>Orokorra</b>	<b>14</b>	A) Garapena eta Ikaskuntza Nerabezaroan	5	<i>Nahitaezkoa</i>	1
		B) Hezkuntza Prozesuak eta Testuinguruak	6		
		C) Gizartea, Familia eta Hezkuntza	3		
<b>Espezifikoa</b>	<b>30</b>	D) Dagozkion Irakasgaien Ikaskuntza eta Irakaskuntza	9	<i>Nahitaezkoa</i>	Urtekoa
		E) Diziplinazko Osagarriak	6		1
		F) Diziplinazko Sakontzea edo Diziplinazko Osagarriak II (espezialitateen arabera)	6		2
		G) Irakaskuntza Berrikuntzan eta Hezkuntzazko Ikerketan Hastea	6		2
		H1) IIEAH (Ikaskuntza Integratua Edukietan eta Atzerriko Hizkuntzan: Ingelesa)	3	<i>Aukerakoa</i>	2
		H2) Hezkuntzan Esku Hartzeko Proposamenak Diziplinetan	3		2
		<b>Practicuma</b>	<b>16</b>	Practicum I	3
Practicum II	7			2	
Masterraren Amaierako Lana espezializazioan	6			2	
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>		<b>60</b>		

### 3. Irakaskuntza egutegia

---

Irakasgaiak honela banatuko dira ikasturtean:

- *Iraila - Abendua*: A, B, C, D eta E irakasgaiak.
- *Azaroa* (2 aste): Practicum I ikastetxeetan.
- *Urtarrila - Martxoa*: D, F, G, H1/H2 irakasgaiak.
- *Martxoa – Apirila* (6-7 aste): Practicum II ikastetxeetan.
- *Apirila-Ekaina*: Master amaierako lanaren prestakuntza, inskripzioa eta defentsa.

Hauetako irakasgaiak:

- A irakasgaia: 73188 Garapena eta Ikaskuntza Nerabezaroan (5 ECTS)
- B irakasgaia: 73189 Hezkuntza Prozesuak eta Testuinguruak (6 ECTS)
- C irakasgaia: 73190 Gizartea, Familia eta Hezkuntza (3 ECTS)
- D irakasgaia: Arloko irakasgaien ikaskuntza eta irakaskuntza (9 ECTS)<sup>1</sup>
- E irakasgaia: Diziplinazko Osagarriak (6 ECTS)
- F irakasgaia: Diziplinazko Sakontzea (6 ECTS)
- G irakasgaia: Irakaskuntza berrikuntza eta hezkuntzazko ikerketan hastea (6 ECTS)
- H1 irakasgaia (aukerakoa) : IIEAH: Ikaskuntza Integratua Edukietan eta Ingelesean (3 ECTS)
- H2 irakasgaia (aukerakoa): Hezkuntzan Esku Hartzeko Proposamenak Diziplinetan (3 ECTS)

Aukerako irakasgaiak (H1/H2) ordu berean dira, eta, beraz, bat baino ez da hautatu behar.

Aste eta egunen egutegi espezifikoak erabilgarri dago [Masterraren web-orrialdean](#), atal honetan: “Egutegia, ordutegia eta ikasgelak”.

### 4. Ordutegiak eta ikasgelak

---

Masterra presentziala da ( ECI/3858/2007 Ministerio Agindua). Egutegi eta ordutegietan jaso egiten da legeak eskatzen duen presentziaren % 80ko murrizketa; beraz, asistentzia nahitaezkoa da. Eskolara joatean huts egiteak, behar bezala **justifikatuak**, gehienez ere % 10eraino onartzen dira.

Eskolak **arratsalde** ematen dira, 15:30-21:00 ordutegi-tartean. Edonola ere, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eskola-praktiketarako aldiak izango dira bertan eskola ematen den ordutegian, alegia, goizez. Unibertsitatearen ardura da praktiketarako ikastetxeak lortzea.

#### IKASGELAK ETA ORDUTEGIA

Modulu orokorra eta espezifikoaren ikasgelak erabilgarri daude [Masterraren web-orrialdeko](#) atal honetan: “Egutegia, ordutegia eta ikasgelak”.

---

<sup>1</sup> Fisika eta Kimika eta Biologia eta Geologia espezialitateetan irakasgai hau bitan banatzen da:

- D1-CCEE: 73142 Zientzia Esperimentalen Didaktika (3 ECTS; bi espezialitateetarako komuna)
- D2-FQ: 73143 Ikaskuntza eta Irakaskuntza Fisika eta Kimikan (6 ECTS; FK-ko espezifikoa)
- D2-BG: 73201 Ikaskuntza eta Irakaskuntza Biologia eta Geologian (6 ECTS; BGko espezifikoa)

Irakasgai bakoitzari dagokion ordutegia erabilgarri dago [Masterraren web-orrialdeko](#), atal honetan: “Egutegia, ordutegia eta ikasgelak”. Han jasota daude, halaber, modulu orokorreko irakasgaien ordutegiak gaztelaniaz eta euskaraz bereizita:

- A irakasgaia: 73188 Garapena eta Ikaskuntza Nerabezaroan (5 ECTS)
- B irakasgaia: 73189 Hezkuntza Prozesuak eta Testuinguruak (6 ECTS)
- C irakasgaia: 73190 Gizartea, Familia eta Hezkuntza (3 ECTS)

## **5. Irakaskuntza metodologiak eta ECTS kredituak. Tutoretza**

---

Gaitasunen araberako irakaskuntza-ikaskuntza proposatzen da, eta, beraz, ezagueren izaera funtzionala nabarmenduko da.

Modulu orokorraren egitura honako hau da:

- Bi orduko saioa *talde handian* (60 ikasle), eduki “teorikoak” aurkeztu eta azaltzeko, batik bat.
- Ordu eta erdiko saioa *talde ertainean* (30 ikasle), aipatu eduki teorikoen adibideak emateko eta horiek aplikatzeko, batik bat; ikasketa teorikoaren ondoren eta proposatutako eginbeharrak burutu ondoren, ikasleak lan aktiboagoa izan behar du.

Modulu espezifiko irakasgaietarako, ikasle kopurua txikia denez, taldeak ez dira banatzen. Gutxienez ere ordu “praktiko” bat egin behar da hiru ordu “teorikoko”.

Prestakuntza Programa europar kreditutan (ECTS) egituratzen da, Europako unibertsitateetan egindako ikasketen balioa errazago onartzeko, eta alderantziz.

Irakasgai bakoitzaren irakaskuntza gidaliburuan zehaztuko dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta garatu beharreko lanak.

## **6. Irakasgaien programa**

---

Irakasgai bakoitzaren hasieran, irakasleek irakaskuntza-programa ematen diete ikasleei.

Irakasgai bakoitzaren fitxak, honako hauek adierazita: deskribatzaileak, helburuak eta eskumenak, betekizunak eta gomendioak, testuingurua, gai-zerrenda eta edukiak, metodologia eta lanerako plangintza, bibliografia eta baliabideak, aurreikusten diren irakasleak, ebaluazio sistemak eta zein hizkuntzatan ematen den. [Masterraren web-orrialdean](#) daude, “Irakasgaien eta Irakasleen Gida” atalean.

## 7. Practicuma

---

Praktika profesionalak master honetako prestakuntza-proiektuaren zati funtsezkoak dira. Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan bi praktika-aldi daude, eta aldi horietan ikasleak Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak aukeratutako ikastetxeetara joaten dira, goizeko txandan:

- Practicum I, bi aste azaroan, Masterraren egutegiaren arabera.
- Practicum II, sei aste martxoan – apirilean, Masterraren egutegiaren arabera.

Aste eta egunen egutegi espezifikoak erabilgarri dago [Masterraren web-orrialdean](#), atal honetan: “Egutegiak, orduak eta ikasgelak”.

Praktika aldi hauetako asmo orokorra da teoria didaktikoa irakaskuntza-praktika profesionalarekin integratzea.

I. Practicuma Masterreko irakasgai pedagogiko, psikologiko eta soziologiko komunei lotuta dago, eta bere helburua da bigarren hezkuntzako ikastetxeen egitura ezagutzea eta nola funtzionatzen duten ikastea. Gaztelaniaz eta euskaraz egiten da.

II. Practicuma Masterreko espezialitateei lotuta dago, eta bere helburua da ikasgelako behaketa eta parte-hartzeko praktikak egitea, dagokion espezialitatearen alorrean. Gaztelaniaz eta euskaraz egiten da (nahiko ikaspostu eta tutore badago).

I. eta II. eranskinetan bi praktika-aldi hauetarako irakaskuntza gidak daude, zehazki deskribatzen dutenak praktika hauen antolamendua, baita funtzionamendua ere

## 8. Ebaluazio sistema

---

Irakasgaietako irakasle taldeek ezartzen dituzten ebaluazio tresnak eta irakaskuntza gidetan agertzen dira.

Nolanahi ere, Masterreko ebaluazioak Unibertsitatearen ebaluazio-araudia betetzen du. Ebaluazio-araudia esteka honetan dago:

[http://www.unavarra.es/digitalAssets/115/115231\\_100000procesos-de-evaluacion.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/115/115231_100000procesos-de-evaluacion.pdf)

## 9. Ikaslearen arduraldia eta irauteko arauak

---

Ikasleak matrikula egiten duen unean erabakiko du zein **arduraldi** izango duen. Aukerak honako hauek dira:

- *Arduraldi osoko ikaslea*: 60 ECTS kreditu kopuruaren matrikula egin beharko du.
- *Arduraldi partzialeko ikaslea*: gutxienez ere 20 ECTS kreditu kopuruaren matrikula egin beharko du ikasturte bakoitzeko.

Iraupen arauak arautzen dute ikasleen iraupena Nafarroako Unibertsitate Publikoko master ofizialetan. Iraupen arauetan aipatzen dira, beste gauza batzuen artean, ikasle bakoitzak duen deialdi kopurua, eskatutako errendimendua eta araudia ez betetzeak dituen ondorioak.

### **Arduraldi ez osoko ikasleen matrikula**

Masterra bi urtetan egin nahi duten arduraldi ez osoko ikasleek honela antolatu behar dute beren prestakuntza ibilbidea:



- **1. urtean** gutxienez ere 20 ECTS aukeratu behar dituzte irakasgai hauen artean:
  - Practicum I (3 ECTS)
  - Hezkuntza Prozesuak eta Testuinguruak (6 ECTS)
  - Ikaskuntza eta Nortasunaren Garapena (5 ECTS)
  - Gizartea, Familia eta Hezkuntza (3 ECTS)
  - Diziplinazko Osagarriak (6 ECTS)
  - Diziplinazko Sakontzea (6 ECTS)
  - Arloko Irakasgaien Ikaskuntza eta Irakaskuntza (9 ECTS)
  - Aukerakoa (ABP/AICLE) (3 ECTS)
- **2. urtean** kreditu hauen matrikula egin behar dute:
  - Lehenengo urtean egin ez dituzten irakasgaienak.
  - Practicum II (7 ECTS)
  - Irakaskuntza berrikuntzan eta hezkuntzazko ikerketan hastea (6 ECTS)
  - Mastera Amaierako Lana (6 ECTS)

Masterra bi urtetan baino gehiagotan egin nahi duten arduraldi ez osoko ikasleek Masterraren irakaskuntza zuzendaritzarekin hitz egin behar dute ezinbestean, bakoitzaren kasua aztertua izateko.

**Deialdiak:** ikasleek lau deialditarako eskubidea dute, irakasgai bakoitza gainditzeko. Matrikula batek bi deialditarako eskubidea ematen du, ikasturteko. Ikaslea ebaluaziora joaten ez bada ere, deialdia kontatu egiten da horretarako.

### **Ikasleen errendimendua**

- Lehen ikasturtea amaitutakoan, gutxienez ere matrikulatutako kredituen % 30 gaindituak izan behar dituzte ikasleak.

- Irauteko gehieneko epea ondorengo taula honetan ezartzen dena izango da:

Masterraren kreditu kopurua	Arduraldi osoko ikaslea	Arduraldi ez osoko ikaslea
60 ECTS	2 urte	3 urte

Ondorio hauetarako, ez dira zenbatuko ez aitortutako kredituak, ezta baliokideturako eta egokitutako irakasgaiak ere.

### **Iraupen arauak ez betetzea**

Arauak ez betetzeak ikasketak egiten segitzea galarazten du. Alabaina, ikaslea beste master ikasketa batzuk egiten has liteke, prozedura orokorrari jarraikiz. Bi urte pasa ondoren, hasierako masterrean onartua izatea eska dezake, baldin eta oraindik eskaintzen bada.

Nolanahi ere, Unibertsitatearen iraupen araudi orokorrak arautuko dituzten iraupen arauak: "Graruko eta Masterreko Ikasketetako Iraupen Arauak (Gizarte Kontseiluaren 2015eko ekainaren 1eko Erabakia)", esteka honetan eskuragarri:

<http://www.unavarra.es/conocerlauniversidad/normativa/enseñanzas/posgrado?submenu=yes>

## 10. Master Amaierako Lana

Unibertsitateko master ikasketa ofizialen bukaeran, ikasleek Master Amaierako Lan (MAL) bat egin eta defendatu behar dute. Ikasketa planaren arabera, lan horrek 6 ECTS ditu.

MALek tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu. Horrenbestez, tituluak irakasgai jakin bateko “espezialista” orientazioa duenez, MALa egindako espezialitatearen arabera orientatu beharko da. Beraz, beharrezkoa da zuzendaria, edo, hala badagokio, gutxienez MALen zuzendarikideetako bat, aukeratzen den espezialitatearekin lotuta egotea.

MALen defentsa inolaz ere ezin izango da egin, aldez aurretik ez badira gainditu titulua lortzea ahalbidetzen duten gainerako irakasgai guztiak. Beraz, irakasgai guztietan matrikula egin ez duenak ez du matrikularik egin behar Master Amaierako Lanean.

### MAL delakoaren garapena eta egutegia

#### 1. Esleipena

Espezialitateetako arduradunek irakasle eta ikasleekin koordinatzen dute MALen esleipena. Ikasleen esleipena, oro har, udaberriko seihilekoan egiten da. MALa “Practicum” modulukoa denez, eta, hortaz, ikastetxeko jarduerarekin lotuta dagoenez, esleipena praktika-aldiko lehenengo asteetan egiten da, martxoan.

Hala ere, badago aurretik esleipena egitea zenbait kasutan, esaterako:

- Beren egoera partikularra dela-eta, MALa otsailean defenditzeko moduan dauden ikasleak.
- Lanen izaera edo orientabidea dela-eta, plangintza edo praktikak baino lehenagoko plangintza edo garapena behar diren horiek.

#### 2. Izen-ematea

MALa defendatzeko, ikasleak Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko Idazkaritzan izena eman behar du. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar ditu:

- Eskera-inprimakia, behar bezala beteta.
- Sarbide irekia eta murriztua baimentzeko inprimakiak, behar bezala beteta.
- Horretaz gainera, Nirelkasgelategiaren bidez, PDF fitxategi bakar batean gora kargatu behar du MALa, lehen orrialdea barne. Fitxategiari honela izendatuko da:

MAL18-BHIUM-ESP-1DEITURA-IIZ.pdf

Hala, esaterako,

“beramendi.12345@e.unavarra.es”

posta elektronikoko helbidea daukan ikasleak honela izendatu behar du bere lana:

Espezialitatea	Izendapena
Euskara eta Literatura (EUS)	MAL18-BHIUM-EUS-BERAMENDI-12345.pdf
Frantsesa (FR)	MAL18-BHIUM-FR-BERAMENDI-12345.pdf
Biologia eta Geologia (BG)	MAL18-BHIUM-BG-BERAMENDI-12345.pdf
Ekonomia eta Enpresen Kudeaketa (EEK)	MAL18-BHIUM-EEK-BERAMENDI-12345.pdf
Fisika eta Kimika (FK)	MAL18-BHIUM-FK-BERAMENDI-12345.pdf
Geografia eta Historia (GH)	MAL18-BHIUM-GH-BERAMENDI-12345.pdf
Ingelesa (ING)	MAL18-BHIUM-ING-BERAMENDI-12345.pdf
Gaztelania eta Literatura (GL)	MAL18-BHIUM-GL-BERAMENDI-12345.pdf
Matematika (MAT)	MAL18-BHIUM-MAT-BERAMENDI-12345.pdf
Teknologia (TEK)	MAL18-BHIUM-TEK-BERAMENDI-12345.pdf

- (Aukerakoa) Horrez gainera, ikasleak argazki, audio eta bideo fitxategiak igoko ditu karpeta batean, bere lana balioesteko beharrezkoak direla iruditzen bazaio.
- Ikasleak lanaren bi ale emango dizkio, paperean, bere espezialitateko arduradunari.

MALaren izen-ematea, espezialitateko defentsaren deialdia zein den, epe hauetan egingo da:

- a. **Otsaileko** deialdia: Dagokion urteko urtarrilean.
- b. **Ekaineko** deialdia: ekainaren 1etik hil bereko hirugarren ostiralera bitartean, biak barne.
- c. **Iraileko** deialdia: ekainaren 1etik urte irailaren 5era bitarteko edozein lanegunetan, biak barne.

Epe horietan, espezialitate bakoitzak datak zehaztuko ditu, ikasle kopurua zein den eta epaimahaien antolaketa kontuan hartuta. Espezialitateko arduradunak bere ikasleei jakinaraziko die epaimahaiak zein egunetan arituko diren jardunean. Inskripzioa behar den aurrerapenarekin egingo da, eta espezialitateko arduradunak ezarriko du; nolahi ere, defentsaren eguna baino 3 egun lehenago, gutxienez ere.

### 3. Defentsa

Ahozko aurkezpena dagokion epaimahaiaren aurrean egingo da, eta ikus-entzunezko bitartekoak baliatu ahalko dira. Jendaurrekoa izango da eta horretarako 20 minutu edukiko dira gehienez ere, eta, ondoren egingo den eztabaidarako, 10 minutu. Nolanahi ere, zilegi da epaimahai bakoitzak, ikasleek defentsa egin baino lehen, lanak behar bezala balioesteko beren iritziz beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.

MALen defentsa egun hauetan egingo da:

- a. **Otsaileko** deialdia: otsaileko edozein egun baliodunetan.
- b. **Ekaineko** deialdia: ekaineko bigarren astelehen baliodunetik aurrera.
- c. **Iraileko** deialdia: irailaren 1etik 15era bitarteko lanegun batean.

Espezialitate bakoitzak egun-orduak zehaztu, eta izena emandako ikasleei jakinaraziko die. Espezialitate koordinatzaileak dauka MALaren epaimahaiak koordinatzeko ardura.

### 4. Epaimahaiak eta ebaluazioa

Espezialitate bakoitzeko epaimahai bat edo batzuk eratuko dira. Hiru irakasle doktorek osatuko dute.

MALaren ebaluazioan epaimahaia burujabea da. Hala ere, MALen zuzendari bakoitzak balioespen bat emanen du, informazio gisa, eta epaimahaiak kontuan hartuko du edo ez. Balioespen horiek epaimahaiburuari emanen zaizkio defentsaren aurretik.

Epaimahaiak kalifikazio kualitatibo bat emanen du (ez gainditua, gainditua, oso ongi, bikain), eta kalifikazio kuantitatibo bat (0-10). Era berean, hala egin behar denean, Ohorezko Matrikula proposatuko du. Proposatu dituen matrikulak gehiago badira araei jarraikiz eman daitezkeenak baino, Masterraren Irakaskuntza Zuzendaritzak adostu egingo du espezialitateko koordinatzaileekin eta epaimahaiekin zein ikasleri idatziko zaion espedientean ohorezko matrikula daukala.

## 5. Dokumentazioa

MALetarako izena emateko inprimakiak eta sarrera irekia eta murriztua baimentzeko inprimakiak formatu elektronikoan daude Masterraren web-orrialdean.

## 6. Araudia

MALa Ikasketen Amaierako Lanei (IAL) buruzko Unibertsitatearen araudi orokorrak arautuko du, zeinek Gradu Amaierako Lanen (GAL) eta MALen ildo nagusiak zehazten baititu. IALen araudi horrek master honetan aplikagarriak izango diren MALetarako espezifikazioak dauzka. Hemen berreskura daiteke:

[http://www.unavarra.es/digitalAssets/115/115231\\_10000011.3-CG---Reglamento-TFE.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/115/115231_10000011.3-CG---Reglamento-TFE.pdf)

## 11. Kredituen balioa aitortu eta horiek transferitzea

---

Kredituen balioa aitortzeko eta horien transferentzia eskatzeko aukera dago aurretik egindako prestakuntzagatik eta esperientzia profesionalagatik. Epea, lekua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta eskaeraren zenbatekoa Unibertsitatearen web-orrialdean kontsultatuko dira:

<http://www.unavarra.es/estudios/acceso-y-matricula/masteres-oficiales/matricula?opcion=5>

Behin eskaera ebatzi ondoren, aitortutako kredituen zenbatekoaren % 25 ordaindu beharko du ikasleak.

## 12. Tutoretzak

---

Irakaskuntza tutoretzetan, ikasleak irakasgaiari buruzko kontsultak egiten dizkio irakasgaia ematen duen irakasleari. Horrez gain, ikasleak tutore bat dauka esleitua, ikasleari lagundu egiten diona bere unibertsitate ibilbidean.

Master honetan, oro har, modulu espezifiko bakoitzeko arduraduna, aldi berean, masterreko ikasleen tutorea da.

## 13. Informazio osagarria

---

### ▪ Sarbide libreko informatika-gelak

Kontsultatu Unibertsitateko Informatika Zerbitzuaren web-orrialdea:

<http://www.unavarra.es/servicio-informatico/>

### ▪ Unibertsitateko Zerbitzuak

Besteak beste, Masterreko ikasleek zerbitzu hauetarako sarbidea dute: liburutegia, kirol eta kultura jarduerak, hizkuntza ikastegia, gizarte, osasun eta psikologia laguntza, egoitza, etab.

Zerbitzu hauen eta beste batzuen helbideak eta telefonoak Unibertsitatearen web orrialdean daude:

<http://www.unavarra.es/servicios/>

## ▪ Unibertsitateko txartela

Nahitaezkoa da azterketa-gela, informatika-gela eta liburutegirako sarbidea izateko. Ikasleentzako Argibide Bulegoan (021. ikasgelan) ematen da unibertsitateak zehaztutako egunetan. Dagokionean, ikasleari jakinarazten zaio.

## ▪ Ikaslearen ataria

Unibertsitatearen orrialde nagusitik sartzen da ikaslearen atarira. Atarian ikasle bakoitzak sarbidea dauka era bateratuan eta banaka unibertsitateak bere eskura jarritako hainbat zerbitzu eta informazioetara. Atarian sartzeko, erabiltzaile bat ([apellido.nia@unavarra.es](mailto:apellido.nia@unavarra.es)) eta pasahitz bat behar dira, eta Ikasleentzako Argibide Bulegoak ematen ditu:

- Helbide elektronikoa: [oficina.informacion@unavarra.es](mailto:oficina.informacion@unavarra.es)
- Telefonoa: 948 169096 / 948 168411

Hurrengo irudian, esteka Unibertsitatearen web-aren orrialde nagusian zein tokitan dagoen ikusiko duzu.

The image shows a screenshot of the University of Navarre (UPNA) website. At the top, there is a navigation bar with the UPNA logo on the left and a search bar on the right. In the center of the navigation bar, the 'PORTAL DE SERVICIOS' link is circled in red, with a red arrow pointing to it from the left. Below the navigation bar, there is a main menu with several categories: LA UNIVERSIDAD, ESTUDIOS, INVESTIGACIÓN, SERVICIOS, INTERNACIONAL, and PERFILES. Each category has a list of sub-links. Below the main menu, there is a large banner for 'Másteres y Títulos propios' with a red background and white text. The banner includes the text 'Preinscripción: hasta el 31 de julio' and a 'Conocer +' button. Below the banner, there are three buttons: 'NOTICIA', 'AGENDA', and 'ACCESO'.

Ikaslearen Atariaren bidez, besteak beste, zerbitzu hauetara sartuko zara:

- *Nire Ikasgelategia*, irakasgaiak kudeatzeko gunea.
- *Unibertsitatearen posta elektronikoko zerbitzua*.
- *Kontsultatu (eta inprimatu) ikasketa-espeditentea*.

## I. ERANSKINA

### MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLETZAN ESPEZIALITATEKO PRAKTIKETARAKO IRAKASKUNTZA-GIDA PRACTICUM I

#### 0. ALDEZ AURRETIKO OHARRA:

Informazio osagarria [Masterraren web-orrialdeko "Praktikak" atalean dago](#). Atal horrek egitura hau izango du:

- Aldia, zeinetan aipatuko baitira iraupena, izaera, antolaketa eta Unibertsitatean tutoretza lana egingo dutenak.
- Irakaskuntza gidetarako estekak orotariko praktiketako irakasgaietarako (Practicum I) eta espezializazioko praktiketako irakasgaietarako (Practicum II).
- Ikastetxe hartzaileak esleitzeko prozedura.
- Praktikak egiteko jarraibideak: gidak, ebaluazioa, konfidentziasun konpromisoa.
- Sarbidea, UNO aldizkariaren adeitasunez, “Momentos de intervención en la formación inicial del profesorado” artikulua osora, zeina aldizkariaren 65. zenbakian argitaratu baitzen.

#### 1. SARRERA

Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Unibertsitate Masterraren *Practicum I* praktika multzo bat da, eta Modulu Orokorra osatzen duten hiru jakintza-arloak elkarlotzen ditu: pedagogia, psikologia eta soziologia. Practicum II delakoarekin gertatzen den bezala, Bigarren Hezkuntzarekin lotuta egon behar du nahitaez.

Helburu nagusia da ikasleek **lehen harremana eduki dezaten ikastetxearekin, baita bigarren hezkuntzako irakasle-lanbidearekin ere**.

Bigarren hezkuntzako etorkizuneko irakasleak prestatzeko lehen praktika hauek balio behar dute ulertzeko zer korrelazio dagoen unibertsitatean, modulu orokorraren bidez, jasotako prestakuntza teoriko-praktikaren eta bigarren hezkuntzako ikastetxean egiten den prestakuntza praktikoaren artean.

Practicum I delakoan, jarduerak diseinatuta daude, funtsean, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako administrazio funtzionamendua ezagutzeko: ikastetxearen organigrama, programazioa, aplikatu beharreko araudia, hezkuntza proiektua, hezkuntza antolamendua, Sailen osaera eta funtzioak, etab. Unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako tutoreek batera koordinatuko dituzte jarduera horiek (erantzukizuna ikastetxeko Zuzendaritzak izango du, oro har). Taldeko praktikak dira, eta ez dituzte ikasleak irakaskuntza-jarduera etengabeetan nahasten.

Practicum I bi astetan egingo da —Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen ordutegi osoan—, [Masterraren web-ean](#) argitaratutako egutegiaren arabera.

Praktika horiek presentzialak eta nahitaezkoak dira, eta ikastetxera ez joatea justifikatu egin behar da beti. Nolanahi ere, Masterraren zuzendaritza arduratuko da kasu bakoitza aztertzeaz, eta, beharrezkoa bada, ikastetxeekin lankidetzan, egoki jotzen dituen ezohiko neurriak hartzeaz.

Praktikak egiteko, ikasleek **ezinbestean**:

- a) Sexu deliturik egin ez izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Jarraian azaltzen da zein den ziurtagiri hori lortzeko prozedura.
- b) Sinatu egin beharko dute konfidentziasunerako eta praktika onetarako konpromisoaren dokumentua. Konpromisoaren ereduak Fakultatearen web-orrialdean dago. [Hemen](#) aurki daiteke.

### **SEXU DELITURIK EGIN EZ IZANAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO ETA BIDALTZEKO PROZEDURA**

Bi urrats eman behar dira: 1) Ziurtagiria eskatu; 2) Ziurtagiria bidali. Jarraian bi urrats horiek deskribatzen dira.

#### **1) Sexu deliturik egin ez izanaren ziurtagiria helbide honetan ESKATU:**

Nafarroako Justizia Ministerioako Lurralde Kudeatzailtza  
PUIKO AMABIRJINA KALEA 1, BEHE SOLAIRUA. 31011 - IRUÑEA  
Telefonoa: 848-424223  
Helbide elektronikoa: [gerencia.pamplona@mju.es](mailto:gerencia.pamplona@mju.es)  
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara

**OHARRA:** Zalantzarik izanez gero prozedurei, epeei, hirugarrenentzako baimenei eta abarri buruz, Lurralde Kudeatzailtzara helarazi behar da zuzenean.

#### **2) Masterreko MATRIKULA egin ondoren eta betiere irailaren 30a baino lehen, mezu elektronikoko bat BIDALI “[facultad.humanas@unavarra.es](mailto:facultad.humanas@unavarra.es)” helbidera, informazio honekin:**

A) *Gaia:* MUPES - SEXU DELITURIK EGIN EZ IZANAREN ZIURTAGIRIA

B) *Mezuaren edukia:*

- IKASLEA:
- NANA:
- Espezialitatea:
- Egiatzapen Kode Segurua (EKS):

C) *Eranskina:* Jatorrizko agiria, Ministerioaren web-orrialdetik jaitzia:

[https://sede.mjusticia.gob.es/verificaCSV/FormularioVerificacion?lang=es\\_es&idtramite=1288778560459&idpagina=1215197884559](https://sede.mjusticia.gob.es/verificaCSV/FormularioVerificacion?lang=es_es&idtramite=1288778560459&idpagina=1215197884559)

**OHARRA:** EKS Ziurtagirian bertan azaltzen da. Behar adina ziurtagiri eskuratzea ahalbidetzen du, eta zuzenean jaitz daitezke Justizia Ministerioaren web-orrialdetik. Ministerioaren web-orrialdean, kontuan izan behar da bertan agertzen den informazioa EKS eta NANA sartzeko moduari buruz.

## 2. HELBURUAK

*Practicum I* delakoaren prestakuntza praktikoa ondoko helburu orokorretan gauzatzen da, etorkizuneko irakasleei begira:

1. Ikastetxearen antolamendua, bigarren hezkuntzako hezkuntza-aukerak eta aldiak, ikasgela eta ikastetxearen gizarte-ingurua ezagutzea, baita ikasleen garapenaren eta ikaskuntzaren ezaugarri psikologikoak ere.
2. Hezkuntza-ekintzak oinarri teorikoak izan behar dituela, enpirikoki egiaztatu behar dela eta batik bat instituzionala dela bereganatzea.
3. Jarduera profesionalaren esparru desberdinak bereiztea: irakaskuntza, parte-hartzea, koordinazioa, zuzendaritza eta kudeaketa, berrikuntza eta prestakuntza iraunkorra.
4. Hausnarketa kritikoa egitea *Practicum I* izenekoan esperimentatu duten irakasle lanbidearen konplexutasunari buruz.

## 3. EDUKIAK

*Practicum I* garatzeko proposatzen diren edukiak gai-bloke hauetan egituratzen dira:

### I. BLOKEA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAREN EGITURA, ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDU INTEGRATUA

- Ikastetxearen antolaketa-dokumentuak
- Egitura eta departamentuaren araberako funtzionamendua
- Hezkuntza komunitatearen koordinaketa eta parte-hartzea

### II. BLOKEA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN GARAPENA ETA IKASKUNTZA

- Bigarren hezkuntzako ikasleen garapen psikologikoa irakaspen-ikaskuntza prozesuetan
- Ikaskuntza bigarren hezkuntzako aldian
- Aniztasuna kudeatzea

### III. BLOKEA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAREN GIZARTE-FUNTZIOAK

- Ikastetxearen eta bere ikasleen testuinguru soziokulturala
- Hiritartasun aktibo, demokratiko, berdinzale eta solidario baterako heziketa

Hiru blokeetako informazioa jasotzeko gomendatzen diren teknikak eta oinarrizko tresnak honako hauek dira: behaketa, elkarrizketak, galdetegiak eta dokumentuen kontsulta.



#### 4. TUTORETZA

*Practicum I* delakoaren **tutoretzan** parte hartzen dute NUPeko zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko irakasleek. Tutoreen eginkizunak hauek dira:

- a. Unibertsitateko tutoreak:
  - *Practicum I* delakoaren edukiak diseinatzea.
  - Praktiken garapena planifikatzea.
  - *Practicum* len jarraipena zehaztea, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko tutoreekin batera.
  - Praktiketako ikasleak ebaluatu eta kalifikatzea.
- b. Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeko tutoreak:
  - Praktiketako taldeei ikastetxea ezagutaraztea.
  - Praktiken garapena planifikatzea.
  - *Practicum* len jarraipena zehaztea, Unibertsitateko tutoreekin batera.
  - Praktika-taldeko kideak banaka balioestea.

#### 5. TXOSTENA

Praktika-taldeek txosten bat prestatuko dute. Praktika aldiaren egindako behaketa eta analisiaren emaitza izan behar du, eta ikasleak saiatu behar du hausnarketa kritikoa eta eraikitzailea egiten, eta horretan proiektatzen etorkizunean irakasle bihurtzeko izan duen bilakaeraren lehen esperientzia.

**Practicum len Txostena taldean prestatuko dute** ikastetxe berera joan diren kide guztiek. Gehienez 20 orrialde izango ditu, eranskinak kontuan hartu gabe.

Txostena aurkezteko, jarraibide hauek hartu behar dira kontuan:

- Lana DINA4 formatuan egingo da, 12 tamainako letra erabiliz.
- Azalean ikastetxeko *ikasle guztien* izenak azalduko dira, bai eta ikastetxeko eta Unibertsitateko tutoreenak ere.
- *Aurkibidean* landutako atal guztiak egongo dira, eta orrialdeen zenbakiak behar bezala jarriko dira.
- *Sarreran* labur adieraziko da txostena zergatik egin den, zein metodori jarraitu zaion egiteko, lanaren egituraren justifikazioa eta erabilitako dokumentazioaren eta iturrien aipamena.
- *Kapituluetan* ikasleek ez dute bakarrik deskribatuko nolakoa izan den beren egonaldia bigarren hezkuntzako ikastetxean; halaber, **talde-hausnarketa** egingo dute hezkuntza lanbideari buruz, bizi izan duten esperientziaren arabera.
- *Ondorioen* atalean eskola praktikaren ikuspegi orokor eta integratzailea azalduko da.
- Bibliografia eta Eranskinak izeneko kapituluak egon daitezke.

Txostena aurkezteko azken eguna abenduaren lehen hamabostaldiko azken ostiral baldioduna izango da. Ikasleek Unibertsitateko praktiken tutoreari eman behar diote zuzenean txostena. Tutoreak

txostena berrikusten duenean, eta, hala badagokio, ikasleek aurkitutako gabezia nabarmenenak zuzentzen dituztenean, praktiketako ikastetxean aurkeztuko da berrikusitako alea. Berrikusitako eta hobetutako dokumentu horretan, praktiketako tutoreek aztertuko dute ikasleek zuzendu beharreko arazorik dagoen deontologia kontuei buruz eta norberaren eta erakundearen nortasuna babesteko kontuei buruz.

Jatorrizko aleak ez dira itzuliko, irakasgaia ebaluatzeko tresna bat baitira.

## 6. EBALUAZIOA

Ebaluazioa prozesu jarraitua da, *Practicum I* izenekoak irauten duen bi asteetan zehar gertatzen dena. Horretarako, Unibertsitateko arduradunak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko tutorearekin koordinatuta, ondoko jardueri ekingo die:

- Practicumaren gidaren aurkezpena eta praktika aldiaren kronograma.
- Praktika taldeen aurkezpena.
- Bi tutoreen artean adostutako praktika-prozesuaren jarraipena egitea.
- Praktika taldeko kideen banakako balioespena eta kalifikazioa.

Praktiken ebaluazioa agiri hauetan oinarrituko da:

- Praktika talde bakoitzak egingo duen *Practicum I-en txostena*.
- Ikastetxeetako tutoreen *ebaluazio txostena*, Unibertsitateak emango diena.
- Praktika taldearen *autoebaluazio-galdetegia*.

Unibertsitateko tutoreek jarriko dituzte *Practicum I-eko* ikasleen azken notak, eta horiek irakasgaiaren aktan agertuko dira. Ondoko kasu hauetan kalifikazioa gutxiegi izango da:

- Bi tutoreek modu negatiboan balioesten badute praktika-aldia. Kasu honetan, ikasleak *Practicum I* osorik egin beharko du berriz.
- Txostena gaintitzen ez bada. Gaintitzeko, ikasleak eta/edo taldeak berriz aurkeztu beharko du beste deialdi batean.

## II. ERANSKINA

### MASTERRA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLETZAN ESPEZIALITATEKO PRAKTIKETARAKO IRAKASKUNTZA-GIDA PRACTICUM II

#### 1. ALDEZ AURRETIKO OHARRA

Practicum Ien kasuan bezala, informazio osagarria dago [Masterraren web-orrialdeko](#) "Praktikak" atalean. Atal horrek egitura hau izango du:

- Aldia, zeinetan aipatuko baitira iraupena, izaera, antolaketa eta Unibertsitatean tutoretza lana egingo dutenak.
- Irakaskuntza gidetarako estekak orotariko praktiketako irakasgaietarako (Practicum I) eta espezializazioko praktiketako irakasgaietarako (Practicum II).
- Ikastetxe hartzaileak esleitzeko prozedura.
- Praktikak egiteko jarraibideak: gidak, ebaluazioa, konfidentzialtasun konpromisoa.
- Sarbidea, UNO aldizkariaren adeitasunez, "Momentos de intervención en la formación inicial del profesorado" artikulua osora, zeina aldizkariaren 65. zenbakian argitaratu baitzen.

Praktikak egiteko, ikasleek **ezinbestean**:

- a) Sexu deliturik egin ez izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Sexu deliturik egin ez izanaren ziurtagiria eskuratzeko eta bidaltzeko prozedura dokumentu honen I. eranskinean azalduta dago (16. orrialdea).
- b) Sinatu egin beharko dute konfidentzialtasunerako eta praktika onetarako konpromisoaren dokumentua. Konpromisoaren eredia Fakultatearen web-orrialdean dago. [Hemen](#) aurki daiteke.

#### 2. HELBURUAK

*Practicum I* delakoaren prestakuntza ondoko helburu orokorretan gauzatzen da, etorkizuneko irakasleei begira:

- Teoria didaktikoa irakaskuntzako praktikoko profesionalarekin integratzea, DBHn, Batxilergoan eta LHn dagokion espezialitatearen eremuan.
- Didaktika espezifikoaren printzipioak atzematea ikasgelako praktiketan, eta irakaskuntzako egoerak interpretatzea.
- Eskola-curriculumaren unitateei dagozkien ikasgelako *egoera didaktiko espezifikoak* behatzea, diseinatzea, garatzea eta aztertzea, abiapuntutzat hartuz ikaskuntza-irakaskuntza prozesuei buruzko oinarri pedagogiko orokorrak, eta espezialitate bakoitzaren edukien didaktikari buruz dituen oinarri espezifikoagoak.

#### 3. ATXIKIPENA IKASTETXEETARA

- Espezialitate bakoitzerako praktiketarako ikaspostu-kopuru nahikoa eskainiko du Unibertsitateak abian den ikasturterako lankidetzaren hitzarmen bat duten ikastetxeetan.

- Ikasleak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bati atxikiko zaizkio, eta han praktikak egingo dituzte aipatu ikastetxeko irakasle tutore batekin edo batzuekin. Atxikipen hori xede horretarako ezarritako prozeduraren bidez egingo da. Informazio gehiago behar baduzu, [Masterraren webgunean](#) aurkituko duzu, “Praktikak” atalean.
- Ikasle euskaldunek, nahi badute, irakaskuntza euskaraz ematen duten ikastetxeetan egin ahalko dituzte praktikak (ikaspostu eta tutore nahikorik bada).

#### 4. PRAKTIKEN GARAPENA

Practicum II Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen ordutegi osoan egingo da, [Masterraren webgunean](#) argitaratutako egutegiaren arabera.

- Aldi horretan, ikasleek 140 ordu egon beharko dute gutxienez ikastetxean, eta 80 ordu gutxienez eskola arautuetan. Beste jarduera batzuk hauek izan daitezke: egonaldia sailean/mintegian irakasleekin, eskolen prestakuntza eta ebaluazioa. Horretaz gainera, ikasle bakoitzak beste 35 ordu gehiago ditu lan autonomoa egiteko (hemen sartzen dira era gehigarrian prestatu behar diren eskolak eta praktiketarako txostena egitea).
- Ikastetxe horretan espezialitateko irakasleek dituzten eskola egun eta orduen araberakoa izango da ikasleen ordutegia.
- Praktikak hurrenez hurrenekoak dira, eta praktika-ibilbide bat programatzea komeni da. Ibilbide horrek aldi hauek izango ditu:
  - Lehenengo aldian *behaketa egingo da ikasgelan*.
  - Bigarren aldian *irakasle tutorearekin irakaskuntzako alderdi partzialak* partekatuko dira: parte-hartzea unitate didaktikoak programatzeko, ariketak eta lanak proposatzeko, haiek ebaluatzeko, mintegiko taldeak prestatu eta emateko, etab.
  - *Irakaskuntzako parte-hartze handiagoa* duen aldi bat: irakaskuntza unitate bat egokitu, garatu eta ebaluatzea, eta, hala dagokionean, hezkuntza-berrikuntzako alderdiak eduki ahalko ditu. Unitate honen ezaugarriak ondoko hauek izango dira:
    - Masterreko IIEAH eta PLBko berrikuntza eta ikerketa gai “didaktikoetako” proiektua bezala pentsatua eta diseinatua izatea, jatorriz.
    - Ikastetxean sortua eta espermentatua izatea, Master Amaierako Proiektuko zatitza hartuta.
    - Ikastetxeko tutorearekin adostua izatea, ikastetxean ematen ari den irakasgaiaren curriculumaren beharrak, eta curriculumaren ikuspegitik egokia ote den kontuan hartuta.

#### 5. GAITASUNAK

Funtsean, *behaketa* eta *analisi kritikoa* egiteko gaitasunak eskuratu behar dira, ikaskuntza eta irakaskuntzako egoera didaktikoetan, espezialitate bakoitzeko irakasgai batean (edo batzuetan):

- *Behaketa eta datuen bilketa* egiteko teknikak, ikasgelako egoera didaktikoetan (beste irakasle batzuen behaketa heteronoma eta ikaslearen behaketa autonomoa).
- Ikasgelan gertatutakoaren irakaskuntza zatien irakurketa analitiko eta interpretatiboaren teknikak, printzipio eta teoria didaktikoen adierazpena gisa ulertuta.

- *Ikasleekiko komunikazio elkarreragina*, aldez aurretik dituzten ideiak eta ulermen eta gaitasun mailak ezagutzeko.
- *Ikerketa-ekintza gaitasunak*, ikasleak parte hartzen duen irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak sakonago ulertu eta diagnostikatu ahal izateko.

## 6. PRAKTIKA ETA EBALUAZIO TXOSTENA

Amaitzeko, praktikei buruzko txosten bat egin behar da, 15 eta 30 orrialde bitartekoa eta atal hauez osatua:

1. Ikastetxearen eta bere ikasleen deskribapena.
2. Zer irakasgaitan parte hartu duen ikasleak, horien deskribapena.
3. Ikasleak egindako jardueraren deskribapena.
4. Egindako jardueraren balorazio eta gogoeta pertsonala, ikasleen (dimentsio kognitiboa), irakasleen (dimentsio instrukzionala) eta edukiaren (dimentsio epistemologikoa) ikuspuntuak kontuan hartuta. Praktiken analisi horretan nahitaezkoa da Masterrean irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruz landu diren alderdi kontzeptual eta praktikoak gehitzea.
5. Zeharkako alderdien analisisa (kultura artekotasuna, dibertsifikazioa, instalazioak...).

Practicum II-ren ebaluazioa egiteko, bi atal hartuko dira kontuan:

- Ikastetxeko irakasle tutoreen txostena, Unibertsitatean praktiken tutorea denarekin eztabaidatua (% 60). Txosten hori praktikak iraun bitarteko ebaluazio jarraituan oinarrituko da, eta ikaslearen ebaluazio errubrika batean adieraziko da, ondoren Unibertsitatean praktiken tutorea denarekin eztabaidatzeko, aurrez aurre edo telematikoki. Ebaluazio errubrikak zenbait alderdi neurtzeko balio du, esaterako parte-hartze maila, ikasleekin izan den enpatia, lankidetzaren curriculumaren garapenean, plangintzarako gaitasuna, irakasleen esku-hartzea etab.
- Praktiken oroitidazkia, Unibertsitatean praktiken tutorea denak irakurria eta ebaluatua (% 40). Ikastetxeko praktiketako irakasle tutoreak oroitidazki horren kopia bat jasoko du.

Practicum II-ren ebaluazioa itxita egon behar denez MALean izena emateko, oroitidazkia maiatzaren lehen hamabostaldian aurkeztu beharko da, lehen deialdian eginez gero, eta hilabete horren bigarren hamabostaldian, bigarren deialdian eginez gero. Espezialitate bakoitzeko ikasleei oroitidazkiak zer egunetan aurkeztu behar dituzten jakinaraziko diete Unibertsitateko tutoreek; egun horiek ezarriak egon behar dute bermatu ahal izateko lehen deialdiko eta bigarren deialdiko aktak maiatzaren 15ean eta 31n itxiko direla, hurrenez hurren.

Practicuma egin bitartean MAL baten parte izango diren jarduerak proposatzen badira, ikastetxeko irakasle tutoreari behar bezala jakinarazi beharko zaio, bi irakasgaien arteko diferentzia argi adieraziz eta ikastetxeko egonaldian eskuratutako materiala erabiliko dela adostuz.

MALak praktikekin lotura zehatza daukan kasuetan, aukera egongo da praktiken oroitidazkia aurkeztu beharrean MALaren ale bat aurkezteko; izan ere, produktu garatuagoa da, eta garrantzi handiagokoa ikastetxeko irakasleentzat.